IRALLA
18
Eguaztena

Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA		
Bilbao'kua	9,00 irko.	Irul...
Bilbao'atazkua..	11,25	"
Idazki-Itunmena	62,00	" urte...
Atzarrijetakuak	112,50	"

Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.092 zenbaki...

Gai jakingarrijenak

"Euzkerea"

Bigaŕen aro onetan, be, auŕera ďuaz aldizkingi onen idazlanak-eta. Amargaŕen zenbakijari adi gagoz. Izpujuŕa edo arkibidia zabaldu daigun. Alagalako lanak begijetaratzen yakuz.

"Páginas del Maestro". Sabino de Arana-Goiri.—Cartas del Maestro. Sabino de Arana-Goiri.—Abeŕi bat; zati bi, Endaitz.—El verbo sintético en los refranos de Oyenarte, Agarel.—Orígenes espirituales del pueblo vasco, José Mguel de Barandiaran.—El epílogo de la libertad, José Jabier de Legia.—Gurutza, aretxa, Endaitz.—El folklore musical en Alaba, José de Uruñuela.—¡Ene abeŕija!, Sabino de Arana-Goiri.—Las flexiones del pretérito del verbo transitivo, Nabaŕiztaŕa.—"Libe", Arana-Goiri, Sota y Astitxe.—Tomás de Zumalakaŕegi, Eduardo Ortiz y Uribe.—Izpaŕak."

Emen daukozube izpijuŕ osua. ¿Erdera laŕtxu, ezta? "Agarel" adizkidiaren idazlan edeŕ ori, be, euzkeraz obeto legoke. Eta "Nabaŕiztaŕa"-ri, be, "Urtzago" azkaŕak esan eutsonez, orixe esango dautsogu. "José Jabier de Legia,,'ren lana atsegingaŕija iduritu yaku. Barandiaran'ena, sakon-sakona. Oleŕkijak, be, ezti gozua dira.

"Agarel"-en lanari buruz Eleizalde'taz gomutau gara. Idazle azkaŕ aren asmakixunai erantzun edeŕa egiten yake Oyanarte'ren atsotitzakaz. "Derosa, debaka, derahaza, diro, donetsa" eta abaŕ.

"Endaitz"-en oleŕki bati, Sabin'enaen oleŕkijen mamija lakoxia idoro dautsegu. Eztira antzekuak, baña gijaŕ bardiña dauke.

"Pisia"

Idazti edeŕ onetzaz "Euzkereak" diñuana idatzaldatu gura dogu.

"Pisia", Jauregi'taŕ Gabirel.

Jauregi'taŕ Gabirel karmeldaŕ aba aguŕgaŕijak, "Pisia"-ixenaz idazti baŕi bat argitaldu dau.

Idazti begiko au ezta besterik, eŕderazko "Física" baño.

Deunen bixitzea

Gala deuna, Lekaipuruba

Urrilla-16'gn.

Lekaipuru ixan zan Gala deuna, semez irlandaŕa eta atonen odoletikua ixan zan, Ugaŕte areri, Deunaren Ugartia eritxoen, santutasun-barna ebiltzanak, ba, asko ziran.

Orduko zaldun aberatsan aŕtian ekandu bat euken eta ekandu oŕi buruz gastaruan eruaten ebezan euren semiak lekaidetxietara-ta. Lotsa ona eta otura garbijak, ba, antxe ikasten ebezan. Bencor uriko lekaidetxeratu eben Gala gastia be. Entzute aundiko lekaidetxia zan auxe, bertan baiteguan Kolunban deun entzutetsuba. Basatikerijaren lausoz ilunduta egozan jakintza ta eleŕti-gayak, lekaidetxe aretan aurkitu eben tokirik berezijena. Alan, ba, Gala gastiak auŕerapen onak egin ebezan oleŕti-gayetan eta idazti deunaren ezagueratan.

Irlanda'ko ugaŕtia itxi biaŕ eta England'eruntz abijau zan Kolunban zaŕa, baña berekin eruan eban Gala gastia be. Atsegn yakan emeretzi urteko gaste aren izketaldija, Jaungoikua'ren arnasez itz-egin eban, onohe itzelak egiten eutsezan.

Anegroy eritxon ekaidetxia irazi eben Besanzon ..ldeko oyana ilun eta ikeragaŕijetan. Beriala betetu ziran elkaidetxe aretako gelak-eta, gastedi gustija ba bertaratu zan deun aren onoimenak zirala-ta. Urte bi igaro ebezan eta Luxeni'era juan ziran. Emen, be, beste toki gustijetan legetxe, saintutasun-atsa edatu zan, baña txeŕenak ezin ikusi dauz berari kalte-egiten dautsenak eta Gala ta Kolunban'en auŕka be, eŕege baten girin txaŕak ixotu ebezan.

Thierry bakaldunaren lixunkerijai buruz gogoŕkiro mintzatu zan lekaipuru deuna. Ori zala-ta France'tik urte-eragin eutsoen. Todoberta'ren loŕaldietaratu Constanza aintzirearen ondotxubetan iragi eben beste lekaidetxe edeŕ bat. Ingiru areik bakaŕtade ikeragaŕijetan egozan, oyana baño ezegozalako. Aureli deunari opaz egiñiko basatxono bat eguan bertan, baña zñiste-bakuak euren guzuŕezko jainkoen irudijakaz betetu eben basatxono a.

Gala deunari min aundija egin eutson ikusi ebanak, baña etzan kikildu. Jentil gusti areik Kisto'ganatu biaŕ ebazala-ta, jayegun batez juan zan guzuŕezko jainkoen txadon ondora Eta ziñismen-bako areik usterik gitxijen ixan ebenian, itzaldi zerutaŕa egin eutsen. Geyenak poztu ziran egin areik entzutian eta deunaren jaŕai juan ziran. Aŕtu basatxonoko irudi areik eta uretara jaurti ebezan.

Kolumban deunak lenengo jaupea be esan eban eta Kistaŕ baŕi areik lekaidetxe-onduan bixi ziran. Cunzon'ego markagunak mesede aundijak noŕ eutsozan Gala'ri eta Gotzaintzat bat opaldu eutsan. Gala'k entzun, be, ezeban egin entzun alakorik. Luxeu'ko lekaidetxian bixi ziran lekaidiak, Eustaki deuna il zanian ara dei-egin eutsen, baña Gala'k ezetz erantzun eutsen. Bakaŕtadia maite yakon.

Bilimar deunaren eskarijai erantzunez itzaldi bat egin eban eta ordu beratan Jainkoa'k adirazten emon eutson iru egun baŕuban igozala. Otoitz zerutaŕak egiten ebazan biŕaŕtian il zan, larogeta bi urte eukozalarik. Irlandaŕak maite dabe Gala deuna eta lateŕi aretatako lekaidetxietan -eta, deu nonen rudija lenengo malan euki daroe

---

Euzkera garbi ta uleŕteŕezian idatziŕa dago.

Itz baŕijak atzalduteko-ta, baŕız, arlo bakotxak, bere iztegija dakaŕ. Eta oŕetara, "Pisia,,'ko ikaskixun gustijak, eŕez-eŕez uleŕtuten dira.

Idazti baŕi au, iraŕiŕa be txukun dago; txukun eta izki garbi edeŕaz.

"Pisia" - ikaskixunen atzalgaŕitzat, 266 maŕazki-inguru dakaŕz. Maŕazki ta enparauko edeŕgaŕi gustijakin be, baña, 5 lauŕlekuan bakaŕik saltzen da.

Saneuŕijari merke be merke deritxagu. Ori dala-ta, ta ganera bera dan edeŕa dalako, Euzko-Ikastoletarako-ta, berebixiko idaztija dala derit agu.

Beŕmeo'n iraŕiŕa dago. Gaubeka'taŕ Biŕoŕ euzkeltzaliaren iraŕkolean iraŕiŕa.

Zabala-Arana euzkel-idazle ospetsubak, Bilbao'ko Verdes-Atxurika'ren iraŕkolean beñola iraŕi eban "Zenbakiztijaz" lagunduteko, berebixiko ikastola-idaztija argiŕaldu dausku Jauregi'ŕaŕ Gabirel karmeldaŕ aba aguŕgaŕijak.

Zorijonak damotseguz, eta eskaŕik-asko.

Uzturre'ren omenez

"Uztuŕe" idazle azkaŕaren omenez bat egiteko asmotan dira tolosaŕ abeŕtzaliak-ta. ¡Edeŕki! Ondaŕeta'ko espetxe ilunetik ogetaboskaŕen egunean uŕtengo da idazle azkaŕ eta argi au.

Geure eŕi eskubidian aldez ibili zalako, etsai amoŕatubak espetxian saŕtu eben. Kareaga'taŕ Jon aldunak beria zala idazlan a esan eban-aŕen, "Uztuŕe" zigortaua ixan zan. Ori gora-bera mutil azkaŕ oŕen adoria ezta epeldu. "El Día" idatzi dauz lantxu edeŕ-edeŕak eta espetxian dagolarik euzkeraldu dauz Kanpion aundijaren asele batzu.

Omenaldi onetan euzkel-idazle gustijak ikusi gura geunkez Antziña esan genduban "Uztuŕe" eta "Aŕi-Gotzon"'i omenaldi bat egin biaŕa eguala, baña orduban ixilik geratu ziranak, orain pizkoŕtu dira. Tira, ba, batzaŕtu gadixan omenaldi gorengua egin dagijogun idazle oni.

Abeŕtzale gustijak dira maŕagaŕijak, baña oŕein aŕtian idazliak lenengo malan dagoz. Egunari beria kendu ta leŕo atsegingaŕijak emoten dauskubez. Geure izkuntza au landuten diñardubeṇ gixonak dira.

Izkorak

Itz onek zer esan gura daun eztakijenak ba-dira. Arana-Goiri'taŕ Sabin geure Irakasliak asmau euskun. Izkora eta bizpera itzak itxastaŕentzat egiñak dira. Itxasua goruntz doianian, izkora esan biaŕ dogu, beruntz asten danian, ostera, izpera.

Egun oneitako izkora edo mereak, ba, bixi-bixijak ixan dira. Ondaŕtza eta kayetako etxolak-eta bazteŕtu ziran. Donostia'ko txaidietan, be, uin bixijak eŕo ebiltzan. Iralako izkora oneik iñoizko bixijenak ixaten dira, baña aurtenguak ikeragaŕizkuak ixan dira.

Getxo eta Portugalete-ingurubetako kayetan, ba, uin aundi ta edeŕak ikusten ziran. Kokoloimokolo ebiltzanak oidalako bustijaldijak jaso ebezan. Gauza ikuskaŕija zan benetan. Uin aundi areik oso-osuan etoŕzan eta kayen aurka uŕatzen ziran. Kanpotaŕ gustijak ikeratuta egozan. ¡Neguban ba'legoz emen, neguban!

¡Erregetarrok!

Bizkai'ko eŕegetaŕak arteak aŕtu eziñik dagoz. Gauŕ ona ta bijaŕ ara, oŕ dabiltz ibili. Orain, be, Roma'ra ei-duaz. ¿Zetan diñostazu? Borbon'taŕ Jon gastiaren ezkontzan lekuko edo testigo-ixan gura dira. Ondaŕeta'ko eta Bilbao'ko eŕegetaŕ ziztriñok, ba, guŕdibil edeŕ bitan juango ei-dira.

Langile batzu, be, eruan gura dabez eta aberatsen aŕtian ordainduko ei-dautse ibiltaldi osua. Obeto egingo leukie emen gosez daukezan langiliai jaten emongo ba'leuskijoe.

¿Ezkontza bat ikustiaŕen oŕen beste lan? Ezta, paŕandea nai dabe ta udeari amayera ona emon gura dautse. ¿Zelan? Eŕoma'ra juanaz. Dirurik eztagola diñoenak, guzuŕ biribila diñoe. Diru laŕ dago, diru laŕ. Borbon'daai bezuza edo eŕegalubak egiteko ateraten dabez lauziriko onak.

Eŕoma'ra duazen gustijok itxuliko ezpa'litzaz. Bestelako bakia ixango geunke!

MOTRIKO

UDAL-ETXEKO BEŔIAK.—Il onen 10'an batu zan emengo "gestora" ta batzaŕ ontan, erabaki auek artu zituzten. Azkenengo batzaŕeko erabakiak irakuŕi ta ontzat aŕtu ziran lenbailen, ta beriala Diputazioko idazki bat irakuŕi zuan Idazkariak, nola Agate doneko etxean Eizagiŕe ta Arkain'daŕ Simona il zan; uŕengo, Eibaŕ'ko zuizkilu ikastolako idazki bat irakuŕi zan ezanaz iluibate ontako, Udalak 188'75 lauŕleko eman beaŕ diola; baita ere irakuŕi zan, Aŕantzaleen Alkartazuneko lendakari ta besteek, izenpetua, ta Etxebeŕia'taŕ Bonifazia'ren etxe auŕea zerbait zabaltzeko, beribilak igaro dezaten bilduŕ gabe, ta ontzat aŕtu zan. Onen guztien ondoren, kontu auek aŕtu ziran ontzat: Olabe'taŕ Joseba Imanol'ena, 146 lauŕleko; Uŕutizkiñena, 32,90 lauŕleko. Kintanila Zarautz'kʳai, 80 lauŕleko; Albizu'taŕ Serafin'ena, 119'00 lauŕleko ta Loyola'taŕ Balendin'ena, 47,25 lauŕleko.

ARNOKO ASTOREA.

Euzkotar Umien Aldez

Irakasle andereño:
"Zerua bare dago, neuŕigabea goyetan eta beian iñoiz geldirik ez dagoan ura."—TAGORE.

Zure ikasleak okeŕak dirala, ez dizutela jaramonik egiten, gauza bat egingo ba'dute zortzi bideŕ agindu erazoten dizutela, aseŕatu ezik ez dezula eurengandik ezer lortzen, miñutu batean ezin dituzula ixilik euki esaten dirazu, ikastaro beŕia degula ta egin dirazun idaztian.

Entzun egidazu,

Zuk geyegi itz-egiten dezu eta geyegi igitzen zera. Au lenengoz esango dizut.

Bai dira irakasleak (lodiegiak diralako edo, arin nekatzen diralako edo) egunik geyena euren mayen atzean exerita igarotze dutenak.

Irakasle abek ezin lezateke lan aundirik eta onik egin; baña egun guztian diadarka ta batera ta bestera jun da etoŕi dabiltzanak ere ez dute era obeagoa umeak ondo eukitzeko.

Zu, zu, gañera, gauza gustiakaitik estututzen zera; beti zaude umeai aseŕeka eta ez dituzu iñoiz zigortzen, eta era onetara zeure izakera gaŕastuta, samindura daukazu, zeure osasuna galtzen ari zera, orduz len zaartu beaŕ dezu, eta—auxe txaŕena—zeure ikasleak garaitu beaŕ zaituzte.

Gauza bat galdetu beaŕ dizut. Oroitzen al zera zeure aurtzaroaz? Pozik ala gogo gabe juaten al ziñan zeu zeure ikastolara? Zer oroipen dezu zeure irakasleaz?

Ez dakizula? Ez zerala oroitzen? Ez dezula zeure oroimenean oŕelako gauzarik gorde?

Tamala orixe. Nere uztez eĝi aundia esan du auxe esan duan jakintsuak: "Zeure aurtzaroaz ez zera gogoratzen, zeure oroipenaren azalean ez dezu zeure umetasuna, eta ala ere irakasle ona izateko auzardia dezu?"

Oroitu ezazu zelako ordu aspergariak igarotzen zinduzun zeure ikastolan beti geldi, beti gauza bat esaten eta beŕesaten eukitzen zinduzen irakasle arekin, eta zeure ikastolan bestetara egin ezazu.

Ete zera zu eŕi txikian ikastola dezulako, ta umien gurasoen edeŕa eukitziaŕen ez goizean eta ez aŕatzaldean umeai jolasaldirik opa ez diozun irakasle ankeŕa?

Onela ba'da, ez altzera kontuan erori zure umeak ikastolatik erteten dutenean eramaten duten zarata aŕiabaŕa ta diadaŕa, batek besteari bultza ta bota beaŕa, atietan aldabak jotzea, txaidean bakean dijuan katuai aŕika ematea, eta baldin mutiltxoak ba'dira, Bruxelles'ko ituŕi aundiaren irudia bizirik antzestutzea?

Umien geldi ezin egonaz Física yakintzan inercia deritxonaz gertatzen zaigu-na berbera gertatzen zaigu. Auxe.

Enparantzan erdi-erdian dagoan proa-aŕija berez iñoiz ez dala igituko, ta iñork bultza edo teink egiten ez ba'dio beti antxe geldi geldi egongo dala gure umeak oso eŕaz ulertzen dute. Bein esan eskero ez zaie astuko, Gañera, esan gabe ere eurek berez bai dakite ori.

Baña, berez ibili dabilen gauza bat, berez ezin gelditu leikela, orixe ez dute umeak ain eŕaz ulertzen.

Esaterako geu bizi geran ludia, edo iŕargia, edo geure auzo ditugun Venus, Jupiter eta abaŕ beti bira-biraka dabiltzala, berez ezin litekezela gelditu, eta gelditu erasoteko indaŕ aundi bat beaŕko litzakeala; geldi ba'legoz ibiltzen ipintzeko añakoa orixe ezin uleŕtu izaten dute ain eŕaz.

(Daŕaike.)

AŔITOKIETA..

"Uztaro"

VII

Gaupiztien artzulean

Ames bat bezain edeŕ eta dirdaitsu azaldu zan biaramona. Magalondotik baratzaldean loreak ixuria dabilen eŕegingai liluragaŕia iduri, zetoŕen eguna argi-pitxiak noranai zabalduz. Etzekaŕen aurpegian, ez lausorik, ez ganduaren kutsurik. Ure-lanbro ugaria zerion eguerdira zabaldu-ala. Eta berdiñik ez dun argiontzi aren dirdaira, ziztaldi atsegiña bialtzen zien noizbeinka begiai gau-intzezko pitxiak belardietatik eta sastondoetatik.

Aizeari oialak alderen alde zabalduta dijoaz ontzitxoak aŕantzura. Atzo baño ekaŕkoŕagoa izango al-due aŕantzale gizajoak gaurko jarduna! Aukerako itxasgiroa da, agian, gaurkoa. Aŕantzaleentzat izan liteken zantzurik oberenetakoa izan oi da izurdeen buruzgainkako jauzia ta olakoetan itxastxoriak erabili oi duen bealdeko egaldia. Oŕez gañera, oŕ-emenka agiri diran urdin-une bereiziak, antxoa-taldeen ur-azaleko ibilia erakusten digue. Onelakoetan, izaten due, noski, itxas-egaztiak gosea nun ase.

Sagastietatik garisoroetara, eta artasoroetatik belardietara, jolasaldi biuŕiak darabiltzki, moxal iŕintzilariaren gisara. itxasaldetik datoŕen aize bigunak. Jolasaldi orietan, artoak esku-atseginkatzen dituanean, maite - ikaraldika bai'lebiltz, kulunkatzen due geŕitxo lerdena ta burualdeko lorea.

Goiz-nagia astindu ondoren, sabel-irakitan suspertu da izadi osoa. Zamoŕo-talde ikusgaitzaren otsa datorkigu nunaitik belaŕietara. Auŕetik alkaŕi itzemanda daudenen antzera, maiteberoaldiak eztenkatzen ditu bizidun guztiak, naiz zentzudun, naiz zentzunik gabeko belarkiak izan. Auxe da izadiaren eztai-egun zoragaŕia! Jaungoikoak ludia egin zuan lenengo egunean bertan bezain bere dirau oraindio izadiaren eŕaietan maite-iradu indartsuak.

Aŕigaŕiak dira, oŕatio, izadiaren gauzak! Bizidun batzuk itzaltzen dijoazen bitartean, beste batzuk bizitzara datortz une artantxe. Bizidun bakoitzaren erioak berak ere, amaika bizitza sortzen ditu! Eriotzaren ondoan bertan, bizitza beŕia sortzen da. Ara oŕ izadiaren zoria! Noiz arte iraungo ete-du maite-sortze aŕigari onek? Jaunkoikoak daki! Arek izadiari bizitz-arnasa ukatzen dion egunean, dana ilgo da, dana ezerez utsean ondatuko da. Bitartean, oŕ ibiliko dira, mako ikuseziñetik zilintzan, mugarik ez duen sailetan piŕitaka, ludi, izaŕ eta eguzki, zerk aizatzen ditun jakin ezik. Bizidunak, beŕiz, laisterka datorkien eriotza atzeratu naiean, aitasemeengana luzatu nai due bizitza. Egun bateko lore zimelduak izan, ordea, bizidun guztiak!

Goiza erdiratu zan garaan, zalpurdi arin bat irten zan Doŕonsoro'ko ataditik eta zaldizaiaren esku-zgoŕaren otsera, laugainka irabazi zuen zaldi biak bidezabala ta, asi baizen bizkoŕ eutsi zioten luzaroan lenengo ibiliari. Zarautz'tik Zestona'ra bitartean, ez du bideak aldapa-une aundirik eta asitako neuŕian piŕitatu ziran gurpilak araño, bideko arkoskoetan labainduz. Baña nekezagoa ta zailagoa zan andik auŕerako ibilia. Aizarna'ko bideari eraso ziotenean, aurki geldiagotu zuen aztaka bizkoŕa ta, maldaŕ-erdiraño eldu ziranean, patsetan blai eginda zijoazen atsanka ta luŕun-jario.

Lau ziran zalpurdian zijoazenak: Libe eta Malentxo aizpak, osaba Martin eta Ageŕe. Malentxe'ren gogoaz besteko irteera ua zerbait gozatzeaŕen, atergabeko itzjarioa zerabilkin Ageŕe'k eta eskurakoi laguntzen zion Libe'k zeregin artan. Iztun atsegiña izan-da, somatu al-izan zituan izkirimiri ta gazigezak jaulki zituan; baita bururatu izan zitzaizkon ipuiñik paŕegaŕienak ere. Sekulako ateraldi gatzdunak ere egin zituan; baña, jaio-unean bertan, izeztuta gelditzen zan Malentxe'ren ezpañetan iŕipaŕea. Oŕez gañera. malkoak ezkotzen zinkoen begiondoak bein baño geiagotan. Alpeŕikakoak izan ziran egin zituen alegiñak eta, Zestona'tik Aizarna'ra aldapa-gora zijoazen garaian, agertu zorian zebilen Ageŕe'ren jarduna; itzalibeaŕean zan laisteŕ aren ipuiñen gazimiña.

Izan ere, etzion ezer asko laguntzen osaba Martin'ek; etzeukan, nunbait, arek beŕiketarako gogo aundirik. Biotza zearo naigabetu zion ustegabeko estualdiak. Buruauste estua bideratu zitzaion, aŕano pola, gabetik goizera, gutxienen uste zuanean. Eta, artean, osabidea eskuratzeko garaian izan ezkero, ainbestean... Gertatuak gertatu, ondabidetik irtetzea nolabait jaritsi ezkero, gauzak esiratu zeizkean artean. Baña, bein neska maitebidean gainbera iŕistaka asita, nork lekike noraño jikoaken? Txinpartaren jeikikoa zan Malentxo txikitandik eta arekikoak beaŕ bezela esiratzeko, kontuz eta erne ibili beaŕa zegon. Ba-zitekean, bestela, arek esiaren gañetik jeiki nai izatea. Gauzak astiro aztertu ta erabili beaŕ ziran, dana ez ondatzeko. Esku leuna ala zoŕotza beaŕ zan estualdi artan? Nola ekin beaŕ zitzaion arleari? Onean, ala gogoŕean? Buruauste samiña, benetan! Eta..., oŕez gañera, nor ete-zan korapiloaren eŕudun? Malentxo bakaŕik? Bera ere, guraso-ordeko bezela, ez al-zan zabarkeri osoan jokatu? Neskaren ibiliak garaiz orpotik zaitu izan ba'litue, sortuko al-zitakian alaingo korapilo biuŕirik?

Osaba Martin'en gogaien joan - etoŕia oneraño iristen zan garaian, atsekabeak iluntzen zion biziro begitartea ta Agere'ri bere jardunean lagundu nai izan aŕen, leengo naigabealdiak ziztatzen zion beŕiro kolko-baŕena, ta zalpurdiaren txokera urbiltzen zan, biozpaŕengo oñazea ezkutatu nairik. Bereala itzaltzen zitzaion ari ere ezpañetako iŕipaŕea.

(Daŕai).

BAŔENSORO.

Errijetatik

ONDARROA

JAYAK. — Aipamen berezirik eztabe merezi igarotako jayak. Eguraldi txaŕak egin ebazan eta ospatu al ixan ziran jayak itzal ospatu ziran eurijaren bilduŕez. Pelota jokubak eztabe zer ikusirik emon, igandekuak ixan ezik. Astelenian Deba'ko erespatza etoŕi zan gau dantzaldija erestuten. Atal batzuek biŕiŕan jo eragin eutsoezan. "Alameda Kinema'n" "Sor Angelica" pelikulea antzeztu eben igande, astelen eta asteartez. Iru egunetan yentez bete zan Kinemea.

AŔANTZALIAK. —Bigaŕen atunetako aŕantzi-aldi edo kosterea amaŕuta aŕantzale gustijak etxeratu ziran jayetarako. Zoritxaŕez irabazi labuŕak ixan dabez. Aurtengo atun aŕantzubak irabazi eskojak emon ixan dauz. Batzuek zeozer egin dabe, baña geyenak ñoz baño txartuago ibili ixan dira irabazijetan.

ESTROPADAK. — Zaletasun bixija soŕtu eben Donosti'ko estropadak geure uritaŕen artian. Origaŕik yente ugari juan ziran igandez eŕi oŕetara. Datoŕen igan... juango diranak be asko ixango dira.

ANTZEŔKI-JAYA.—Il omen 22 eta 23'ko gabetan "Bohemios" eŕdel antzerkija antzeztuko da "Alameda Kinema'n". Bertan batzen dana Eŕuki etxerako ixango da. Antzezkija antzeztuko dabenak Berastegi eta Laŕakoetxea Bilbao'ko abeslari ospatsuak ixango dira. Eurokaz lan egingo dabe beste abeslari punterengo askok be.

NASKALDIJA. — Iruña'tik etoŕita emen agurtu doguz Egaña'taŕ Sekunda, Lipuzkoa'taŕ Martin eta Bengoetxea'taŕ Karla jaupari abeslarijak.

Egun batzuek geure aŕtian igaro ixan dauz Uriguen'daŕ Pantzezka, durangaŕ lataŕijak.

Gazteiz'era juan da Uŕesti'taŕ Sorne.

Arakistain'daŕ Modesta'ren emaztiak alabatxu bat ixan dau eta Miren Nekane euzkel-ixenagaz ugutzau dabe.

Bedialauneta'taŕ Andoni'ren emaztiak be alabatxu bat ludiratu dau.

Ugutzautian Miren Eguzkiñe imiñi eutsoen ixentzat. Zorijonak.

LIRAIN.

MUNGIA

IKERTALDIJA. — Igaro dan astian ikertaldu euskun Batzokija, Algorta'ko E. A. B.'ren lendakarijak lendakari-ordiak, idazkarijak eta Gamaŕa izlari ospetsubak.

GEXORIK.—Aransolo jaunaren emastia gexorik aurkitzen da. Lasteŕ sendotutia opa dautsat.

DABILTZAZANAK.—Opoŕak igarota juan da Algorta'ra Toŕontegi'taŕ Josebe andereñoa, Algorta'ko Euzko-Ikastola'ko irakasleme zintzu. Ondo ibili.

Santander'tik aldi bat igaro ondoren etoŕi da geure txauburu aguŕgaŕia dan Etxebaŕia'taŕ Joseba Gotzon jauna.

Beŕiz'tik, Beŕzbeitia'taŕ Benike anderañua.

Eibaŕ'tik, Salgado'taŕ Miren Aguŕtzane eta Zengotita'taŕ Sorne anderañuak. Ondo etoŕijak.

BAZORDA'RA.—Igaro dan astaŕtian juan giñan neskatil batzuk egun igaroten. Bidean neska-mutil talde bat aurkitu gendun arantz-doyazala ta eurokin asmau gendun eŕomerija. Eguraldi edeŕa egin eban. Geure santzo ta euzko-abestijak ezenduzan entzun irakuŕle?

TXORITXU-ALAI.
E. A. B.

MUNDAKA

Opoŕ-aldija igaro-ta emen gara baŕiro euzkerearen aldez alegindutera. Ixilian egon gara luzaro baña, ondo egiña, udaldijan itas-ertze eŕijetatik izpaŕ onik ixaten eztiralako, txaŕak baño. Orain neguko abeŕkoizeregiñak buruz, emen gara.

Lenengua ta gaŕantzidunena. Uŕila'ren 1'guan Euzko-Gastediko aretuan euzkel-irakaskuntzak asiko dira. Ez atxakirik eztaukelako. Euzkeraz ikasi ta Euzko-Gastedira juateko zaletasun... mundakaŕ abeŕtzalia, abeŕtza... eta da gero? Oŕetarako ... dan ba abeŕtzaletasuna? Abe... rala-ta zagozanok juan zale... ikasten, irakaslerik onena ... be-ta.

Bata euna-ebate ta ezka... irakatsiko dira. Igazitako ... gai au emakumiak darabile.

ANTZEŔKIJAK. — Pro... ibiltaldija egin ondoren Kapital... diran españaŕ antzezlarijen ... bere probintzijetatik ibili ez ... pan ibili garanok kapitalera ... tedira jo beaŕ dogu egunoro, ... baŕiko antzeŕkijak entzayaten ... bidez orain aŕte askotxu eg... gauŕ geroz askosaz geyago e...

Antzeŕki baŕijak eta antz... iak beaŕ doguz aldra edeŕ bat ... antzezlari ixateko prestazuna ... uste daunak, datoŕela zeŕ-eg... ixango dau-ta.

BATZAŔA.—Igazi dan ... Gastediko aretuan U. B. B., ... Euzko-Gastediko-Batza ta ziñe... tzaŕtu ziran eta eŕiko abeŕtzale... ruz erabagi egokijak artu ebe... kuak ixan ziran uŕenguan esan... bitaŕtian negualdiko abeŕkoi - ... auŕera eruateko alegindu gaie... jok.

ONDARTZ...

Alboniga-Bermeo

ANDRA-MARI JAYAK.—E... ontzale eta eŕikot jai ospatsu ... igaro yakuz. Orain aŕteko noti... rik be ez gendun ixan gure a... ŕegaŕijan. Zorijon ala zortxaŕ... be ez gendun ixan, ta, berau ... gitxitxu Almikaratu ziran.

Igandian, 8'gaŕenian, Alboniga... dra-Mari'ren asotxonu politian ... gosija; abesturik Goikoetxea're... entzutetxua. Iru abotsetara. ... ixanik Ugarte'taŕ Alexander Aba... ŕuna eta txauneski laguntzale A... Pausta mutil gaste zuŕa.

Txonitza, Zalo - Etxebaŕia'taŕ ... Muxika'ko Txaunburu jaunak; ... Bizkai'ko euzkera gogoz, Miren ... tzaren Deuntasuna, Gaŕbitasuna ... tasuna.

Elixkixun- amaŕu ondoren, ele... zelai zabalian. bertoko baseŕitaŕ ... eralduta auŕesku luze bat egin ... lo ugarijak Aŕtetxe zuri. Baño ... uŕterako obeto gertau egixuz ze... tza mutilak.

Aŕatsian, 5'etatik saspiretara d... iak; Beŕmeo'ko erespatz entzutets... ta.

Astelengo, 8'gaŕenian. arimen ... Sein ta goguaren egin-biaŕ ta ga... detzaz be edeŕki ta laztankiro m... zan Zalo-Etxebaŕia jauna. Be... aŕantzale ta itxastaŕak ondo e... dabe jaupa oneri. Andra-Gixonik ... be eŕduzan.

Aŕatsian ez egon eresbatzik. E... be bertaratu. Tamal-tamala.

Astaŕtian, 10'gaŕenian. goiz-jaupa... tua. Aŕatsian, dantzaldijak; Be... eresbatzak iota. Notintzarik neiku... ratu zan.

Auŕten, eztogu ikusi emetik S... eresbatz ospatsurik.

Egiz diñot. Alboniga onetara ez ... notintza edo ostetza andirik Be... Udaldaŕen eŕua da. Oŕdu bardiñian ... eta Urijan jolas edo jayak antolatu ... Zegaŕik ez, ba, Alboniga'n ezertxo ... nian, beste jai batzuk, edo gustija... ditu, edo, gitxienez, beste ordu b... 'an ipiñi, pelota jokaldija itzaldu e... espetauta?

Esate bateroko; eguraztokiko e... ta dantzaldijaren orduba aldatu?

Ia datoŕen urtian ze edeŕto egi... -ubezan jayak antolatu. Gu, alm... bentzat, oŕen itxaruan gagoz.

KUŔTZU...

ELGOIBAR

Javo eta oŕdu gutxi baŕu, zerura... Gabilondo'taŕ Josu, eta Legaristi'ta... ren "Ibaŕtola" baseŕikuen seme b... guntzen diegu atsegabian.

—Deuna Kalare eleizatxuan, ozt... te) asko biltzen da, Asis'taŕ Pa... Doŕea'ren bederatzi - uŕenian. I... igandian bukaera izan goda itzald... 'taŕ Andoni apaizan gain egonik.

—Igande goizian Lerun-zelayan, ...-eta uri baŕuko txapelketak jokatu... Goizian gastiena, "Amaika Gaste,,... Alkaŕtasuna'k (o) gelditurik. Baña ...ka-Gaste'k jokaldi geiago irabazi ...kerik txol polit bat bérenganatu d...

Aŕatsaldian, naguziena, "Los ...gos" eta "Ezin bada laga'k" on...k d igogoŕa egin zuten. "Los Niñ... rabazirik 2 ta 1. Oŕegaitik txapeld... ra dira, ta txolik gaŕatziduna izan... entzat, Agiŕe'taŕ Anite neskatila ...ren ezkutik aŕtu zuten.

"Ezin bada-laga" ondo geldituril... txol txikitxu lenenganatu dute.

—Aizpurutxu'n Jel Alderdi ja... gaste talde bat igandian izan zan... etxeraturik ango jai aldi ta itzaldi... ak ikusi ta entzunda.

Luistaŕak ere, beren ileroko elez... dia izan zuten, igaro dan igandian... jaun aŕtze ta itzaldi beren buru da... 'taŕ Andoni'k egin da.

—Emen aguŕtau ditugu, Onda... abeŕtzale sutsubak diran, Zubizar... Joseba Mirena, Aŕasate'taŕ Edur... Trine aizpak, eta Olea'taŕ Terese.

—Emen izan gendun "Basaŕi" o... ta izlari azkaŕa.

—Santander, Asturias ta Leon ... jun da San Martin'daŕ Agustin.

—Bostekua, estutu giñon, Sond... Udal dazkari dan, Axuria'taŕ Just...

—Barcelona'tik, etoŕita emen a... da, Iglesias Mendieta'taŕ Martin, emastiarekin

Atzerri'tik Aberri'ra

UAŔA.—Lenengo idazkijak ixenpetuge agertu ziran EUZKADI egunorokuan Ixenbako idazkijak eztabe indaŕik. Zer dala-ta jun ete-ziran ba ixenge? Ara, irakuŕle. Sei ziran nire idazkitxubok eta seigaŕena bakaŕik ixenpetu neban. Gero, baña, seirok batera ezin argiŕaldu ta idazkijok edo ixenpetuge edo idazkijaren "Agindu" azken-itza ixenorde arauz ebela agertu ziran. Azketsi, irakuŕle. Daŕait.

VII.—"ARGIA,,'RI

"Argia" lendik ain begiko ziñan asteoroko ori, aspalditxubon guztiz apain eta edeŕtuta zabiltz. Ondo dagerzu bai dakixula nun eta zein alditan bixi zaran. Donosti'n jayo ta Donosti'n bixi zara. Donostiaŕa esan eta apaña, txukuna, poliŕa esan bat da. Donostiaŕak ludi biribilako baŕi ta auŕerakuntzak lasteŕ eurakanatuten dabez. Batzubetan auŕerakuntzak barik atzerakuntzak jaŕaŕuten ikasten dabe, Deauville, Trouville, Pourville ta oŕelako uŕurijetako gangaŕkeri atzeragiñak, baña egizko auŕerakuntzak jaŕaŕuten be ba'dakije. Zuk, "Argia" begiko oŕek, Donosti zeure jayoteŕijan ikusi dozuz atzeŕijetako izpaŕingi ta aldizkingijak, euren irakuŕlien eskubetan txukun-txukun jantziŕa. Eta zeuk be donostiaŕ antzo bai dakixula zeure buruba egoki dan letz jantzi ta edeŕtuten erakutsi dautsazube.

Donosti-lagiz jantzi zara. Lirain, edeŕ, ikusgaŕi. Paris'en ikusi zabez ta goraldu zaŕube; Sevilla'n emengo edeŕenak baño edeŕago eritxi zaŕube. Argija zara, "Argia", ta edonun argija zabalduten dozu, donora argija ta txukuntasuna daruazu. Irakuŕle.

URTZAGO.

Tarifa, 1935-X-13.

Euskeltzaleen Orratza
Lko. BAT
Saltzalientzat
Saneurri bereziak
ARIETA IXIZALEA
Legazpi, 10'an. - Urrut. 13.777. - Donostia

Irakurri EUZKADI